

16/25

irizpena

Bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzua
emateko Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu
publikoaren eta enplegatzeagentzien arteko
akordio irekiak arautzen dituen
dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2025eko abenduaren 22a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 16/25

I.- AURREKARIAK

2025eko abenduaren 2an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren idazkia jaso genuen. Horren bitartez, *“Bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzua emateko LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta enplegatze-agentzien arteko akordio irekiak arautzen duen dekretu-proiektuari”* buruzko txostena eskatu zuten, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontsultagai dugun arauaren xedea da, 1. artikuluan azaltzen denez, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta enplegatze-agentzien artean egingo diren akordio irekien araubide juridikoa arautzea, Euskal Autonomia Erkidegoan bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzua emateko lankidetzat antolatzeko. Dekretu honetan araututako akordio irekiak kontratuzkoak ez diren antolaketa-tresnak dira, eta Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 57. artikuluan xedatutakoaren mende daude.

Berehala bidali zitzaion dokumentuaren kopia Batzordeko Oso Bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritzia emateko eta horiek guztiak lan-batzordean landu daitezela, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamenduari buruzko araudiak xedatutakoaren arabera.

2025eko abenduaren 18an Gizarte Garapenerako Batzordea bildu zen eta, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin zen, Batzordearen Osoko Bilkuran berresteko. Han gehiengoz onartu zen CCOO, LAB eta UGTko boto partikularrekin

II.- EDUKIA

“Bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzua emateko LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta enplegatze-agentzien arteko akordio irekiak arautzen duen dekretu-proiektua” honako hauek jasotzen ditu: zioen azalpena, 16 artikulua, xedapen iragankor bat, bi azken xedapen eta eranskin bat.

Zioen azalpenak dioenez, lan-bitartekaritza, langileei beren ezaugarrietara egokitutako enplegua ematera eta entitate enplegatzaileri beren eskakizun eta beharizanetara ondoen egokitzen diren langileak eskaintzera bideratutako ekintzen multzo gisa, enplegu-zerbitzu publiko guztiek bermatu behar duten zerbitzu publikoa da, Enpleguaren otsailaren 28ko 3/2023 Estatuko Legeak ezartzen duen bezala.

Enplegu-zerbitzu publikoekin batera, 3/2023 Legeak eta hura garatzeko araudiak bitartekaritza-agentzetzat hartzen dituzte enplegatze-agentziak eta hauek, enplegu-zerbitzu publikoekin koordinatuta edo haien entitate laguntzaile gisa egin dezakete beren jarduera, dagokion tresna juridikoa artikulatuz.

EAEn, bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzua Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroan dago sartuta, zeina Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legean baitago araututa. Lege horren 32. artikuluan esaten da zerbitzu horren helburua izango dela enplegu-eskaintzak identifikatu eta kudeatzea, eta eskaintzetara ondoen egokitzen diren erabiltzaileei lotzea, haien profil eta konpetentzien arabera.

Enpleguaren 15/2023 Legeak 29. artikuluan xedatzen duenez, Lanbide–Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak bermatuko du Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroko zerbitzu guztiak emango direla, eta horien artean dago bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzua; bada, 48.1 c) artikuluan eskusiboki esleitzen zaio lan-eskaintzak kudeatzea eta enplegu-eskatzaileri esleitzea, hargatik eragotzi gabe Enpleguaren 3/2023 Estatuko Legean enplegatze-agentzientzat xedatutakoa.

Enplegatze-agentziek eta Lanbide–Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak bitartekaritza-zerbitzua emateko duten lankidetza berariaz dago aurreikusita enpleguaren EAEko legearen 56.3 artikuluan, bertan ezarrita baitago hitzarmenak sinatu ahal izango direla, eta dirulaguntzak eman edo beste edozein lankidetza-hitzarmen ezarri ahal izango dela, sektore publikoko kontratuei buruzko legean xedatutakoa aplikatzeari kalterik egin gabe, baldin eta dagokion gaia bere esparruan sartzen bada.

Lanbide–Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak lan-bitartekaritza kudeatu du enplegu-politika aktiboen arloko eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zaizkionetik. Zerbitzu hori emateko, enplegatze-agentzien laguntza erabili izan du batzuetan, kontratazio-prozeduren bidez.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak ezinbestekotzat jotzen du enplegatzearen arloko lankidetza hori areagotzea, kudeatutako enplegu-eskaintzen kopurua handitu ahal izateko eta, horrela, emaitza handiagoak eta hobeak lortu ahal izateko enplegu-eskatzaille gisa inskribatuta dauden pertsonak benetan laneratzeko azken helburuan.

Horretarako, Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 56.2 artikuluan aurreikusitako eta 57. artikuluan araututako akordio irekien formula sistema egokia izan daiteke Lanbide–Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta enplegatze-agentzien arteko lankidetza hori bideratzeko. Aipatutako xedapenean ezarritakoaren arabera, akordio irekitzat joko dira hainbat entitatek zerbitzuaren eskaintzan parte hartzea ahalbidetzen duten akordioak, baina ezin izango da entitate bat beste batzuen artetik hautatu, eta entitate horiek ez dira behartuta egongo eskaintzak aurkeztera.

Prozedura horri esker, interesa duten eta aurreikusitako betekizunak betetzen dituzten enplegatze-agentzia guztiek hartu ahal izango dute parte, haien artean hautatu gabe, ahalik eta enplegu-eskaintza gehien biltzeko enplegu-eskatzaille gisa izena emanda dauden pertsonen eskura jartzeko. Hautaketa baztertu egiten da, kontratu publikoen funtsezko ezaugarria, baina aukera ematen da alde aurreko gaitasun-irizpideak ezartzeko

III.- GOGOETA OROKORRAK

I – Arauaren balioztapena

“Bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzua emateko LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta enplegatze-agentzien arteko akordio irekiak arautzen dituen dekretu-proiektuak”, enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legea garatzekoak, arautu egin du enplegatze-agentzien eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren arteko lankidetza antolatze modua, lan-bitartekaritzaren arloan, akordio irekiak sinatuz.

Hori da EAEko enpleguari buruzko Legearen 56.3 artikuluko manuari jarraitzen dion 1. artikuluan adierazitako xedea. **Positiboki baloratu dugu**, zeren eta enplegua eskatzen dutenak benetan laneratzera bideratuta baitago, bai eta EAEko enpresek, LANBIDE dela tarteko, kontrataziorako egokienak diren profilak aurkitzea errazago egitera ere.

II – Beste gogoeta orokor batzuk

Lehenik eta behin, enpleguari buruzko Legearen manu hau zuzenki bete dadin, LANBIDEk gai izan behar du **lankidetzaren emaitzak ebaluatzeko**, eta, aurkeztutako testuan, ez da ziurtatuta geratu gaitasun hori duenik. Dekretu-proiektuan xedatu denez, lankidetzako agentziei fakturatzeko eta ordaintzeko epea hilerokoa izango da (9.5 artikulua), baina lankidetzaren horren emaitzen ebaluazioa ez da gauzatuko akordioa sinatu denetik urtebete igaro arte (11. artikulua), eta horrek ez dirudi eraginkorra denik. Ebaluatze-lan hori egiteko, gainera, enplegu-politikaren helburuei eta hark iturburu dituen printzipioei jarraitu beharko da, bereziki berdintasunarenari eta diskriminaziorik ezarenari.

Horregatik da halabeharrezkoa, hizpide dugun Dekretuan, **gardentasun-, ebaluazio- eta kontrol-mekanismoak** hobeto garatzea, kalitatea eta etengabeko hobekuntza zaintzeko.

Bigarrenik, funtsean egokia izanik, uste dugu proposatutako testua falta zaizkion zenbait hobekuntzaz osatu beharko litzatekeela, segurtasun juridikoa eta aplikagarritasun praktikoa indartzeko. Zehazki:

- Komenigarria litzateke **indar handiagoz adieraztea akordio irekiak ez direla kontratuak**, baizik eta 15/2023 Legean ezarritako lankidetzaren tresnak. Dekretuak hala berretsi arren, xehetasun teknikoaren mailak eta betebeharren egiturak nahasmena eragin dezakete. Argiago adieraziz gero, interpretazio okerrak ekidingo lirateke eta tresna blindatuko litzateke etorkizuneko auzien aurka.
- Dekretuak nahiko sakon barrendu da **prozedura operatiboetan**, eta, gure ustez, Lanbideren jarraibide tekniko batean sartuta egon beharko lukete horiek, ez arauan. Hori egitea erabakiz gero, Dekretua argiagoa eta ez hain zurrana izango litzateke, eta edukiak ez luke kontratazio-agiri baten itxura hartuko (oso kontuzko gaia, tresnaren zer-nolakoa ikusita).

IV.- GOGOETA BEREZIAK

8. artikulua. Aurrekontuaren zuzkidura.

Honako hau xedatu da: *“lankidetzako enplegatze-agentzia guztiek aurrekontu-ekitaldi baten barruan egindako jarduketengatik ordaindu beharreko zenbateko osoa ez da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrekontuan xede horretarako esleitutako aurrekontu-kredituaren gainetik egongo, edo, kreditu hori igoz gero (indarreko legediari jarraituz aurrekontu-aldaketak onetsiz), gertatuko litzatekeen zenbatekoaren gainetik egongo.*

Aurrekontu-kreditua agortu den ustezkoan, adostutako jarduketaren ordainketa bertan behera utziko da, eta akordioaren eraginkortasuna eten egingo da. Xede horrez, Lanbidek, kudeaketa-sistema informatikoaren bidez, lankidetzako agentziei jakinaraziko die une horretatik aurrera ekitaldi horretan adostuko diren jarduketa berriek ez dutela kontraprestazio ekonomikorik jasoko, kontratazioek salbu, 9.5 artikuluko hirugarren lerrokadan ezarri bezala. Edonola ere, ordainsaririk gabe gauzatutako jarduketak agentziaren jardueraren ebaluaziorako hartuko dira kontuan”.

Gure iritziz, eragoztekoa izan beharko litzateke baliozko jarduketak ordaindu gabe geratzea kreditua agortzeagatik, eta berme-klausula bat gehitzeko aukera aztertu beharko litzateke, kreditua automatikoki handitzekoaz gain.

9. artikulua. Ordainsaria eta ordainketaren dinamika

Lehenik eta behin, artikulua honetako **2.a) letrak** ezarri du lan-eskaintza bat tratatzeagatik 112 euroko oinarritzko zenbatekoa ordainduko dela, BEZa kanpo. Horren jarraian, **2.b) letrak** oinarritzko zenbatekoaren gehikuntzak arautu ditu, eskaintzan nagusi gisa adierazitako okupazioaren kualifikazio-mailaren arabera.

Oinarritzko zenbatekoari erreparatuz, azpimarratu nahi dugu proiektuaren justifikazio- eta ekonomia-memoriako 2. zenbakian zehaztu den formulak, orduko prezioa kalkulatzeko erabiliak, erreferentzia gisa duela, hirugarren sektoreko enplegatze-agentzientzat (haren pisua jardueraren bolumen osoaren % 24,49 izanik), estatu-mailako eta Gizarte Ekintzako eta Esku Hartzerako II. Hitzarmena (Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeko ez dena).

Gizarte Ekintzako eta Esku Hartzerako II. Hitzarmenak berak aitortu du, 4. artikuluan, aurretik zeuden lurralde-hitzarmenak (eta horien eguneratzeak) aplikatzeko lehentasuna. Lurralde-hitzarmenok berariaz zerrendatuta daude bigarren xedapen gehigarrian, eta, bertan, EAEko hiru lurraldeetako (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) esku-hartze sozialeko hiru hitzarmenak aipatu dira.

Lurralde-hitzarmen horien 1. eta 2. artikuluetan, arlo funtzionalaren barruan sartu da jarduera soziolaborala, eta, lurralde-arloari dagokionez, jarduera hori aplikatu egingo da kasuan kasuko lurraldean gauzatzen denean, erakundearen egoitza sozialaren kokapena edozein dela ere.

Ez dago zalantzarik, hortaz, **erreferentziazat hartu** behar direla, kalkularen oinarrirako, **Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeen Esku Hartze Sozialeko Hitzarmenak**. Horrenbestez, ondoriozko balioa zuzendu beharra dago, 1. taldeko nahiz erantzukizun-osagairako (3. tarte) oinarritzko soldatan zenbatekoa handiagoa jaso baita, eta, horrez gain, gehieneko lanaldia 120 orduetik gorakoa baino txikiagoa, Estatukoarekin alderatuta.

Bestalde, artikulua honek oinarritzko zenbatekoaren gaineko igoera ezarri du eskaintzaren tratamenduan, noiz eta eskaintzaren okupazio nagusia **kualifikazio-maila ertain/altu** gisa sailkatuta baitago; **kualifikazio-maila baxuko** eskaintzetan, aldiz, ez da pizgarririk ezarri.

Erregulazio horrek ez du koherentziarik 3/2023 Legearen eta 15/2023 Legearen berariazko manuarekin; dekretu-proiektuaren erreferentziazko arau-esparruekin, alegia. Horiek berariaz ezarrita dute enplegu politika publikoak, *“ahal dela”*, lehentasunez artatzeko kolektiboen *“oztopoak kentzera”* bideratzeko betebeharra, eta kolektibo horien artean berariaz aipatu da **“arreta berezia”** ematea **“kualifikazio txikiko pertsonen”** (15/2023 Legearen 6.3 artikulua), eta, horretarako, *“ekintza positiboko neurriak”* sartu beharko dira (15/2023 Legearen 6.2 artikulua).

Proposatutako pizgarrien diseinuak, hala, 15/2023 Legeak erdietsi nahi duenaren kontrako efektua dauka, kualifikazio txikiko gisa sailkatutako eskaintzak direlako pizgarririk ezarri gabeko bakarrak. Horren ondorioz, lehentasunezko kolektiboei zuzendutako eskaintzak *“lehenetsi gabeko”* bakarrak dira, nahiz eta *“gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasun handiagoak dituzten pertsona”* gisa aintzatetsita egon eta, beraz, bitartekaritza-prozesu konplexuagoa eta metodologikoki intentsiboagoa ekarri.

Horrenbestez, artikulua goian azaldutakoa ulertuta berrikustea eskatu da.

Bigarrenik, **3.a) letrak** xedatu duenez, kudeatutako eta amaitutako eskaintzetan bidalitako hautagaietatik **eratorritako kontratazioengatik**, *“500 euroko oinarrizko zenbateko ordainduko da (BEZa kanpo) Gizarte Segurantzaren alta emandako bakoitzeko, betiere kontratatutako pertsonak enpresa berean altan jarraitzen badu gutxienez sei hilabetez, erreskadan, dela lan-kontratu bakar baten bidez, luzapenak barne hartuta, dela etenik gabeko ondoko ondoko kontratazioen bidez”*.

Uste dugu sei hilabeteak etengabekoak izateko baldintza zorrotzegia dela eta nolabaiteko **malgutasuna** ahalbidetu behar dela. Gauzak horrela, enpresan kotizatutako egunen kopurua kontatzea litzateke aukera bat, betiere zentzuketzat jotakoa (145 alta-egun sei hilabetetan, adibidez).

Azkenik, **3.b) letran**, gehikuntza-portzentaje desberdinak xedatu dira eskaintzaren zenbatekoaren gainean, lanpostua **lehentasunez artatu** beharrekotzat jotako sei **kolektiboetako** bati eman zaionerako (gazte-bermeko sistemaren onuradun diren 30 urtetik beherakoak, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak, terrorismoaren biktimak, genero-indarkeriaren biktimak, iraupen luzeko langabeak eta DSBE/BGDSren onuradunak).

Zerrenda horretatik kanpo utzi dira bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak, nahiz eta berariaz identifikatuta egon lehentasunez artatzeko kolektiboaren barruan, bai 3/2023 Legearen 50. artikuluan, bai 15/2023 Legearen 6.3 artikuluan, eta nahiz eta hirugarren sektoreko enplegatze-agentziek egindako bitartekaritzaren hartzaille nagusiak izan (justifikazio- eta ekonomia-memoriaren informazioaren arabera, EAEn egindako bitartekaritza-jarduera globalaren ia laurden bat osatzen dute). Ez da pertsona horiek bazter utzi izana arrazoitzen duen agiririk aurkeztu.

Ondorio gisa, gai hori berrikustea eskatu da, bai eta **bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak** 9.3. artikuluan identifikatutako kolektiboen barruan sartzea ere.

V.- ONDORIOA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egokitzen jo du *“bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzua emateko LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta enplegatze-agentzien arteko akordio irekiak arautzen dituen dekretu-proiektua”* izapidetzea, bai eta lortu nahi duen xedea ere, hau da, lan-merkatua dinamizatzea eta enplegu-eskatzaille gisa inskribatutako pertsonen lan-aukerak zabaltzea.

Bilbon, 2025eko abenduaren 22an

OE Presidentea

Idazkari Nagusia

Javier Muñecas Herreras

Izaskun Astondoa Sarria

ERANSKINA

IRIZPENARI EMANDAKO BOTO PARTIKULARRAK

EUSKADIKO CCOO SINDIKATUAREN BOTO PARTIKULARRA

Euskadiko CCOOren jarrera “BITARTEKARITZA- ETA ENPLEGATZE-ZERBITZUA EMATEKO LANBIDE EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOAREN ETA ENPLEGATZE-AGENTZIEN ARTEKO AKORDIO IREKIAK ARAUTZEN DITUEN DEKRETU-PROIEKTUARI” buruzko irizpenari buruz.

Botoa: EGABen gehiengoz onetsitako irizpenaren aurkakoa

Botoaren azalpena eta CCOOren jarrera aurkeztu den dekretu-proiektuaren inguruan.

CCOOk defendatu du aurkeztutako dekretu-proiektuak balorazio negatiboa eta izapidetzearen aurkako jarrera merezi dituela. Jarrera hori, funtsean, hiru alderditan oinarrituta dago:

- Egokitasuna: Dekretuaren helburuen falta nabaria, eta ezkutuan duen helburuarekiko kontrako iritzia eta mesfidantza.
- Dekretuaren egokitasuna: Bitartekaritza-eredua finkatu eta Lanbidek zuzenki dimentsionatu aurretikoa.
- Akordio irekien formula: “guztiontzako kafe” eskuzabala, bere ezarpenarekin ikaste-emaitzarik atera ezin duguna.

Dekretu honen bidez, lankidetzak publiko-pribatuaren aukera areagotu eta unibertsalizatu nahi da, akordio irekien formula erabiliz, denetan orokorra eta irekiena baita. Enplegu-sistema publikoaren funtsezko zerbitzu baterako erabiltzeko justifikazio espezifikorik eta arrazoiturik gabe egin da. Martxan jartzeko adierazitako justifikazio bakarra hura babesten duen legezkotasuna da soil-soilik (enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legea).

Dekretua Lanbideren bitartekaritza-eredurik landu gabe aurkeztu da (Lanbideren Administrazio Kontseiluan adostu gabe, behintzat), eta ez da lan-eskaintza nahiz -eskarien bitartekaritza- eta egokitzapen-prozesuek dituzten zailtasunei buruzko aurretiazko diagnostikorik egin, ez eta orain arte lankidetzak publiko-pribatuko prozesuetan lortu diren emaitzen (oso ahulak) ebaluaziorik ere. Lehenik eta behin, beraz, dekretuak lortu nahi dituen helburu zehatzak argitu eta eskatu behar dira, gero helburu horiek betetzen ote diren ebaluatu ahal izateko.

Izan ere, CCOOk uste du, dekretu honen bidez, enplegu-zerbitzu publikoak egiten dituen bitartekaritza-zifrak itxuraldatu besterik ez dela egin nahi, eta ez dela hobetuko erakundeak ematen duen bitartekaritza-zerbitzua, ez duela lan-merkatua dinamizatuko, eta ez dituela lan-eskatzailerik gisa inskribatutako pertsonen lan-aukerak zabalduko, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen irizpenak gurari gisa adierazi bezala.

Lehenik eta behin egin beharrekoa da, beraz, dekretuaren bidez lortu nahi diren helburu zehatzak argitu eta gobernuari nahiz Lanbideri eskatu, gero helburu horiek betetzen ote diren ebaluatu ahal izateko.

Euskadiko CCOOren ustez, lan-bitartekaritza eta enplegatze-zerbitzua enplegu-sistema publikoen muinoa osatzen duten elementuetako bat da, eta, horregatik, enplegu-zerbitzu publikoaren baliabide eta langile propioak baliatuz ere kudeatu behar da. Hori esanda, salbuespen gisa eta aldi baterako baino ez dira ebaluatu behar lankidetzak posibleak, hots, zerbitzuak salbuespenez eta noizean behin soilik kanpora atera behar dira, baliabide propioak baliatuz ezin denean.

Gaur egun, Lanbide aldaketa-prozesu betean izanik, bere forma juridikoa barne, eta LPZ berri bat barne hartzen duen berregituraketa estrategikoari helduz, uste dugu dekretu hau argitaratzea, erakundea berregituratzeko prozesua amaitu aurretik eta LPZ onetsita eduki aurretik, ez dela bereziki egokia. Prozesu horretan finkatu behar du Lanbidek bitartekaritza-eredua, eta erakunde berriak behar bezala dimentsionatu behar du.

Azkenik, aukeratutako formula, akordio irekiena, lankidetzak publiko-pribatuaren eredua modu unibertsalean zabaldu eta orokortu nahi duen formula da, esan dugun bezala, zifrak itxuraldatzeko, haren ezarpenetik ikasteko aukerarik izan gabe; izan ere, erregulazioan ezarri denez, bitartekaritza-prozesuko enpresa-emaitzak lortzea ez da nahitaezkoa izango eskaintzaren kudeaketagatik edo kasuan kasuko enplegatzeengatik kobratzeko eskubidea sortzeko.

Kanpoko lankidetzara joz gero, CCOOk lankidetzak publiko-publikoak lehenetsi du, eta, ondoren, irabazi-asmorik gabeko erakundeekin edo hirugarren sektoreko erakunde espezializatuekin egiten dena.

Euskadiko CCOOren hitzetan, enplegatze- nahiz bitartekaritza-zerbitzua emateko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta enplegatzen-agentzien arteko akordio irekiak arautzen dituen dekretuak salbuespenera eta behin-behinekotasunera mugatu behar ditu lankidetzak horiek, ikasteko balioko duen helburu- eta ebaluazio-sistema argi bat ezarrita. Hor giltzarria ez da eskaintzen bolumena izango, baizik eta haien kalitatea aintzat hartzea eta eskaintza kaskarrak baztertea.

LAB SINDIKATUKO ORDEZKARIAREN BOTO PARTIKULARRA

EGABko Osoko Bilkurak bilera egin du 2025 abenduaren 22an, eta bertan Bitartekaritza- eta enplegatze-zerbitzua emateko LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta enplegatze-agentzien arteko akordio irekiak arautzen duen dekretu-proiektuari buruzko irizpena onetsi da,

LAB Sindikatuak aurkako botoa eman duela. Bilera horren ondoren, erakunde honek honako hau adierazi nahi du:

BOTO PARTIKULARRA

Egindako **irizpenaren aurka gaudela** adierazi nahi dugu, honako arrazoi hauek direla eta:

1. Lanbidek bete behar dituen funtzioak pribatizatu egiten ditu, Lanbidek berak eduki ditzakeen baliabideak baztertu egiten ditu, bikoiztu eta areago entitate pribatuei lan berdina egiteagatik ordainsaria ematea planteatzen du dekretuak; orain arteko kolaborazio hitzarmenetan ordainsaririk jaso ez dutenean.
2. Lanbidek dituen funtzioen artean enplegu eskaintzak bildu eta kudeatzeko eginkizunak pribatizatu eta azpikontratatzek ez du inolako zentzurik. Behar horri erantzuteko Lanbidek dituen langile propioak erabili behar dira eta zerbitzua dimentsionatu behar da, plantilla handituz erantzun behar zaio dauden behar guztiei. Langile publikoak izango dira enplegu-zerbitzua eta bitartekaritza-zerbitzua emateko aproposenak eta gaituenak diren langileak, funtzio publikoan sartzeko berdintasun-, gaitasun- eta meritu-printzipioen arabera inkorporatu diren edo inkorporatu beharko diren horiek.
3. Zerbitzua bikoiztu eta pribatizatzerakoan, Lanbideren eginkizunen artean enplegatze-agentzietako langileak prestatu behar dituela adierazten du dekretu proiektuak. Lanbidek baditu edo izan beharko lituzke enplegatze zerbitzu publikoa den aldetik horretarako langileak. Zerbitzu hori pribatizatzeak, azpikontrataturiko langileen prekarizazioa sortzeaz gainera, zerbitzuaren kalitatea okertu egiten du eta kontrol publikoa guztiz ahuldu.

EUSKADIKO UGT SINDIKATUAREN BOTO PARTIKULARRA

EUSKADIKO LANGILEEN BATASUN OROKORRAK (UGT-E) EMANDAKO BOTO PARTIKULARRA

UGT EUSKADIK 16/25 Irizpen Proiektuaren AURKAKO BOTO PARTIKULAR hau eman du, **LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta enplegatze-agentzien artean bitartekaritza- eta enplegu-zerbitzua emateko akordio irekiak arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa, honako hauek oinarri hartuta:**

GOGOETAK:

Dekretu honek planteatutako erregulazioa lankidetzaren publiko-pribatuaren barruan kokatzen da, kasu honetan enplegatze-agentziek bitartekaritza- eta enplegu-zerbitzua emateko, eta, gure ustez, enplegu-zerbitzu publikoaren bidez egin beharko litzateke hori. Funtsezko deritzogu enplegu-politika horiek politika publikotzat jotzeari, eta horrela mantendu behar da lan-bitartekaritza jardueraren publikotzat jotzea, gizartearentzat funtsezkoa baita.

Hori kontuan hartuta, UGT Euskadik Administrazioak duen lankidetzaren publiko-pribatuari buruz dituen zalantzak planteatu ditugu, zehazki lan-bitartekaritzan eta ordainpeko enplegatzean datzanari buruz dituenak, lankidetzako enplegatze-agentziek egindako jarduketengatik. Honako gai hauen ingurukoak dira zalantzak:

1. EAEko esparrua: Lanbide, sistemaren ardatz modura

UGT Euskadik defendatu du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak honako hauek izan behar duela:

- Enplegu-politika aktiboen tresna zentrala eta egituratzailea.
- Zerbitzu publikoa, unibertsala eta doakoa.
- Baliabide nahikoak eta langile egonkorak dituen.
- Erakunde pribatuekin duen lankidetzaren orok ezin du Lanbide ordezkatu edo edukirik gabe utzi.

2. UGT Euskadiren zalantza eta kritika nagusiak

a) Ezkutuko pribatizazioa gertatzeko arriskua

UGT Euskadik ohartarazi du lankidetzaren formula jakin batzuek:

- Egiturazko funtzioak eragile pribatuei helarazten dizkietela.
- Merkatuarekiko mendekotasuna sortzen dutela.
- EAEko sistema publikoaren ahalmen estrategikoa ahultzen dutela.

Pribatizazio funtzionaltzat jotzen dela, baina ez formaltzat.

Enplegua ezin dela ordainpeko zerbitzu bilakatu.

Kobrantza zeharkakoa denean ere (enpresen bidezkoa edo emaitzen arabera sortutako kontratuen bidezkoa), sindikatuak muga zorrotzak eta kontrol publikoa eskatzen dituela.

b) Inpaktua Euskadiko lehentasunezko kolektiboengan.

UGT Euskadik azpimarratu du EAEko lan-merkatuak honako hauek azaltzen dituela:

- Biztanleria aktiboaren zahartzea.
- Iraupen luzeko langabeen kontzentrazio handia.
- Generoaren eta jatorriaren arabera segmentazioa.

Erakunde pribatuak laneratze bizkorreko profilak lehenesteko joera dute, eta kanpo uzten dituzte laguntasun publikoa gehien behar dutenak.

c) Lehendik dauden eragileekin gainjartzea.

UGT Euskadik bitartekari pribatuen hedapena zalantzan jarri du, jadanik baitaude honako hauek:

- Lanbide.
- Udaletako eta eskualdeetako enplegu-zerbitzuak.
- Egiaztatutako esperientzia duten eragile sozialak eta hirugarren sektoreko erakundeak. Benetako koordinazioa eskatu da, ez lehia edo bikoiztasunak.

d) Enpleguaren kontrola, ebaluazioa eta kalitatea.

UGT Euskadik honako hauetan jarri du arreta:

- Laneratzeen kalitatea (egonkortasuna, lanaldia, soldata).
- Helburuak betetzeko “enplegatze estatistikoak” gertatzeko arriskua.
- Adierazle kualitatiboen eta epe ertainerako jarraipenaren falta. Enplegu duinak lehentasuna eduki behar du, lanpostuen kopuruaren gainetik.

3. UGT Euskadiren jarrera eredu alternatiboari buruz

UGT Euskadik honako hauetan oinarritutako eredua defendatu du:

- ✓ Lanbideren aurrekontua eta langileak gehiagotzea.
- ✓ Bitartekaritza % 100 doakoa langileentzat.
- ✓ Eragile pribatuekiko lankidetza soil-soilik osagarria eta arautua.
- ✓ Lehentasuna kolektibo kalteberei.
- ✓ Ebaluazio publikoa, gardena eta independentea.
- ✓ Sindikatuen partaidetza diseinuan eta jarraipenean.

4. Eskumenei dagokienez: Eusko Jurlaritzaren erantzukizuna.

UGT Euskadik gogorarazi du Euskadik honako hauek dauzkala:

- Eskumen osoak enplegu-politika aktiboetan.
- Arauketa- eta aurrekontu-ahalmen propioa.

5. Amaierako gogoetak.

Eskumen propioak eta Lanbide den enplegu-zerbitzu publikoa izanik, ez da onargarria Euskal Autonomia Erkidegoan lan-bitartekaritza negozio bilakatzea.

UGT Euskadiko postulatuekin jarrera koherentea, eta, gainera, harrigarri zaigu Dekretu honen edukia ez egon izana aldez aurre Lanbideko Administrazio Kontseiluaren eskuetan